

2016/17

Startinova, "Gure proiektua martxan"

Arrate, Goretti, Helene, Ione eta Uxue



FUNTSEZKO

ELKARTEAK

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Bazkideak:

- Informatikoak → Aplikazioa eratzen laguntzeko.
- Diseinatzaileak → Aplikazioaren diseinua sortzeko.
- Modan adituak → Arropa konbinazioak egiteko, aplikazioa moda kontutan eguneratzeko.
- Hizkuntzalariak → Aplikazioaren sorreran hizkuntza ezberdinak ezartzen lagundu dezaten.
- Kontabilitateak → Proiektuaren prozesua kudeatu eta administratzeko laguntzeko.

Hornitzaileak:

Arropa denda ezberdinak → Beraien baimena behar dugulako aplikazioan beraien arropak izateko eta hauek esango digutelako zer arropa duten momentuan salgai.

- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Guk bakarrik guztia egitea ezinezkoa delako. Gure taldean bakoitzak gaitasun ezberdinak ditu eta horiek ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu behar gara ahalik eta gastu gutxien izateko, hasieran ez baitugu diru sarrerarik.

- Helene: Aplikazioa sortzeko gaitasuna eta kontabilitaterako gaitasuna.
- Uxue: Diseinua egiteko gaitasuna.
- Arrate: Hizkuntzetan gaitasuna.
- Goretti: Moda munduan ezagutza.
- Ione: Bazkideak eta bezeroak lortzeko gaitasuna, hau da, komunikaziorako arduraduna.

Gure baliabideak kontuan harturik aurrerago agian ez dugu hainbeste bazkideren beharra izango, baina hasieretan oso garrantzitsua dela uste dugu, gure proiektuak oinarri on bat izan dezan. Proiektua martxan jartzean eta oinarri bat eman ondoren berriz planifikatu beharko genuen gure proiektuaren beharrak asetzeko baliabideak (bazkide, hornitzaile...).